DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
DonostiaTIK
Txomin Agirre, 6 - Tel. 010 - 943481800
20018 Donostia / San Sebastián

Espediente zenbakia: 14/2023

ESKURAPEN SISTEMA DINAMIKOA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

APLIKAZIOAK GARATZEKO ZERBITZU INFORMATIKOEN KONTRATAZIOA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza Teknikoen Agiri honen xedea da oinarri teknikoak ezartzea, Ezaugarrien Taulako C apartatuan adierazitako zerbitzuak Eskurapen Sistema Dinamiko baten bidez kontratatzeko.

Kontratatuko den kontratu espezifiko bakoitzaren zehaztapen teknikoak dagokion gonbidapenari erantsiko zaion dokumentazioan zehaztuko dira; horretan, kontratu espezifikoaren xede den proiektu bakoitzaren helburuak eta beharrezkoak diren analisi eta garapenak adieraziko dira.

2.- IRISMENA

Kontratu espezifiko bakoitzaren irismena gonbidapen bakoitzari erantsitako dokumentazioan zehaztuko da.

3.- ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

3.1. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Kontratazio Sistema Dinamiko honetatik datozen kontratu espezifikoen bidez kontratatu nahi den zerbitzu bakoitzaren deskribapenak dagokion gonbidapenari erantsitako «Zehaztapen teknikoetan» jasoko dira.

Nolanahi ere, emandako analisi- eta garapen-zerbitzuetan, zeregin hauek gauzatu beharko dira:

- Txostenak eta estatistikak. Kudeaketa txostenak egitea, informazioa emateko, estatistikak egiteko

Expediente: 14/2023

SISTEMA DINÁMICO DE ADQUISICIÓN

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

CONTRATACIÓN DE SERVICIOS INFORMÁTICOS DE DESARROLLO DE APLICACIONES

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de este Pliego de Prescripciones Técnicas es establecer las bases técnicas para la contratación, mediante un Sistema Dinámico de Adquisición, de los servicios indicados en el apartado C del Cuadro de Características. OK

Las determinaciones técnicas de cada contrato específico que se vaya a contratar, serán detalladas en la documentación que se adjuntará a su respectiva invitación, en la que se indicarán los objetivos, análisis y desarrollos necesarios de cada proyecto objeto del contrato específico.

2.- ALCANCE

El alcance de cada contrato específico será detallado en la documentación que acompañará a cada invitación

3.- ESPECIFICACIONES TÉCNICAS

3.1. DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO

Las descripciones de cada servicio que se pretenda contratar mediante los contratos específicos derivadas del presente Sistema Dinámico de Contratación, serán detalladas en las “Especificaciones técnicas” que se adjunten a su correspondiente invitación.

En todo caso en los servicios proporcionados, tanto de análisis como de desarrollo, deberán realizarse las siguientes tareas:

- Informes y estadísticas. Facilitar informes de gestión a efectos informativos, estadísticos y

I2344n I

eta datuak analizatzeko.

- Proiektuaren garapenarekin lotutako dokumentazioa sortu edo eguneratzea (dokumentazio teknikoa, dokumentazio funtzionala, erabiltzailearen eskuliburua, analisi funtzionala eta datuen eredua DonostiaTIKen wikian).
- Era berean, proiektua kudeatu eta administratzeko berezko zereginak ulertzea.
- Administrazio publikoko hizkuntza arauak ezartzen duenez, aplikazioak hizkuntza ofizial guztietan egongo dira (euskara eta gaztelania). Horregatik, analisi eta garapenek kontuan hartu beharko dute derrigortasun hori, eta euskararen erabilera lehenetsiko dute beti.

Gainera, hauek izango dira analisi proiektuen zereginak:

- Informazio sistema aztertu eta diseinatzea, gonbidapenari erantsitako «Zehaztapen teknikoetan» adierazitako betekizun funtzionalen eta arau betekizunen arabera.
- Kanpoko beste sistema batzuekiko integrazioa diseinatzea (Errolda, Terceros, Kale izendegia, Dokumentuen kudeatzailea, Jakizu, Nire Karpeta, Sarrera-irteerako erregistroa, SADFE, Nuxeo, Prozesuen kudeatzailea, Erabiltzaileen kudeaketa, NISAE, Trazatzailea...)

Garapen proiektuetan zeregin hauek egongo dira:

- Modulu multzoa garatu, ezarri eta konfiguratzea, dagokion gonbidapenari erantsitako «Zehaztapen teknikoetan» adierazitako betekizun funtzionalen eta arau-betekizunen arabera.
- Hala dagokionean eta beharrezkoa denean, kanpoko beste sistema batzuekiko integrazioa gauzatzea (Errolda, Terceros, Kale izendegia, Dokumentuen kudeatzailea, Jakizu, Nire Karpeta, Sarrera-irteerako erregistroa, SADFE, Nuxeo, Prozesuen kudeatzailea, Erabiltzaileen kudeaketa, NISAE, Trazatzailea...)

análisis de datos.

- La creación o actualización de la documentación asociada al desarrollo del proyecto (Documentación técnica, documentación funcional, Manual usuario, Análisis funcional y Modelo de Datos en la Wiki de DonostiaTIK)
- Asimismo, comprenderá las tareas propias de gestión y administración del proyecto.
- La norma lingüística en la Administración pública establece que las aplicaciones soporten las distintas lenguas oficiales. (Euskera/Castellano). Por ello, tanto los análisis como los desarrollos deberán contemplar esta obligatoriedad, priorizando siempre el uso del euskera.

Además, para los proyectos de análisis se describen a continuación las tareas a realizar:

- Análisis y diseño del sistema de información según los requisitos funcionales y normativos indicados en las “Especificaciones técnicas” que se adjunten a su correspondiente invitación.
- Diseñar la integración con otros sistemas externos (Padrón, Terceros, Callejero, Gestor Documental, Jakizu, Mi Carpeta, Registro Entrada/Salida, SADFE, Nuxeo, Gestor de Procesos, Gestión de Usuarios, NISAE, Trazador, ...)

En el caso de los proyectos de desarrollo las tareas a realizar serán las siguientes:

- Desarrollo, implantación, configuración del conjunto de módulos según los requisitos funcionales y normativos indicados en las “Especificaciones técnicas” que se adjunten a su correspondiente invitación.
- Cuando corrresponda y sea necesario, realizar la integración con otros sistemas externos (Padrón, Terceros, Callejero, Gestor Documental, Jakizu, Mi Carpeta, Registro Entrada/Salida, SADFE, Nuxeo, Gestor de Procesos, Gestión de Usuarios, NISAE, Trazador, …)

112344n1

- Aplikazioa Udalaren zerbitzarietan egongo da erabilgarri, eta beharrezkoa izan daiteke Intraneten zein Udalaren Estranetean jartzea.

3.2. INGURUNE TEKNOLOGIKOA

Erabili beharreko garapen metodologia I. eranskinean («Ingurune teknologikoa») dago zehaztuta.

Eskatzen duten enpresek eranskina eskuratu dezakete, eskatzailearen datuak erregistratu ondoren, beharrezkoa den konfidentzialtasuna ziurtatzeko. Horretarako, bitarteko hauen bidez jarri beharko dira harremanetan:

Helbide elektronikoa:
donostiatik_kontratazioa@donostia.eus
Telefonoa: 943481824

4.- PROIEKTUA GAUZATU ETA KUDEATZEA

4.1. PLANGINTZA

Kontratuaren xede den lana proiektu moduan antolatuko da.

4.2. ZUZENDARITZA.

Enpresa adjudikaziodunak pertsona bat izendatuko du proiektuaren koordinatzaile izateko, eta arduradun horrek DonostiaTIKek izendatutako garapen funtzionaleko arduradunaren aurrean izango du erantzukizuna. DonostiaTIKi dagokio egindako lanak gainbegiratu, kontrolatu eta onartzea, bai eta egoki iritzitako zuzenketak zehaztea ere.

4.3. LANAREN ANTOLAKETA ETA KONTROLA

Proiektua behar bezala gauzatzeko, ezinbestekoa da enpresa adjudikaziodunaren eta DonostiaTIKen koordinazioa egokia izatea.

Proiektuaren antolamenduak eta egikaritzeak aukera eman behar dio proiektuaren aurrerapenaren jarraipen formala egiteko.

- La aplicación estará desplegada tanto en los servidores del Ayuntamiento, pudiendo ser necesario realizar el despliegue tanto en la Intranet como en la Extranet municipal.

3.2. ENTORNO TECNOLÓGICO

La metodología de desarrollo a utilizar se encuentra detallada en el Anexo I – Entorno tecnológico.

Dicho anexo se encuentra a disposición de las empresas que así lo soliciten previo registro de los datos del solicitante a efectos de acreditarla confidencialidad requerida. Para ello tendrán que ponerse en contacto a través de:

Correo electrónico:
donostiatik_kontratazioa@donostia.eus
Teléfono: 943481824

4.- EJECUCIÓN Y GESTIÓN DEL PROYECTO

4.1. PLANIFICACIÓN

El trabajo objeto del contrato se organizará bajo la forma de un proyecto.

4.2. DIRECCIÓN

La empresa adjudicataria designará una persona como Coordinador del Proyecto que será responsable ante la persona Responsable de desarrollo funcional nombrada por DonostiaTIK.
Corresponde a DonostiaTIK la supervisión, control y aprobación de los trabajos realizados, así como determinar las correcciones que se estimen oportunas .

4.3. ORGANIZACIÓN Y CONTROL DEL TRABAJO

El desarrollo satisfactorio del proyecto requiere de una buena coordinación entre la empresa adjudicataria y DonostiaTIK.

La organización del proyecto y su ejecución debe ser tal que le permita obtener un seguimiento formal del avance del proyecto.

I12344n I

Kontroleko eta jarraipeneko lanen helburua da zerbitzuaren prestazioaren egoera modu objektiboan ezagutzea, hobetu daitezkeen alderdiak zehaztea eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak aplikatzea, egindako lanen kalitatea ziurtatzeko:

- DonostiaTIKek izendatutako proiektu kudeatzaileak eta enpresa adjudikaziodunaren koordinatzaileak bilera bat egingo dute astero, hasitako lanen egoera eta gauzatze maila eta eguneroko kudeaketan izandako edozein motatako gorabeherak aztertzeko.
- Eskatutako lan bakoitza amaitzean, dagokion dokumentazio teknikoa eman beharko da.
- Koordinatzailearen eta DonostiaTIKen arteko komunikazio kanal ohikoak hauek izango dira: helbide elektroniko bat, telefono finkoko zenbaki bat eta telefono mugikorreko zenbaki bat.
- DonostiaTIKek amaierako kalitate kontrola egin ahal izango die egindako lanei, ziurtatzeko analisiak ondo egin direla eta lan horien oinarriko premiei egokiro erantzuten dietela eta, garapen informatikoen kasuan, egiaztatzeko I. eranskinean («Ingurune teknologikoa») adierazitako metodologiako eta kode kalitateko irizpideak betetzen direla. Irizpide horiek alda daitezke, baina alderdi horretan gerta daitezkeen aldaketen berri emango zaio talde teknikoari.

DonostiaTIKek hala eskatzen badu, enpresa adjudikaziodunak DonostiaTIKeko zerbitzarietan instalatuko ditu enpresa adjudikaziodunaren proiektuak funtzionatzeko behar diren elementu guztiak. Instalazioa egin ondoren, instalazioa zuzena dela eta proiektuak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatuko dute enpresa adjudikazioduneko langileek.

Las tareas de control y seguimiento tienen como propósito conocer de forma objetiva el estado de la prestación del servicio y detallar los aspectos mejorables y aplicar las medidas correctoras que sean necesarias con el fin de asegurar la calidad de los trabajos realizados:

- El Gestor del Proyecto nombrado por DonostiaTIK y Coordinador del Proyecto de la Empresa adjudicataria realizarán semanalmente una reunión para examinar el estado y el grado de ejecución de los trabajos iniciados y las incidencias de cualquier tipo que se hayan producido durante la gestión diaria.
- Al finalizar cada trabajo solicitado, se deberá entregar la documentación técnica correspondiente.
- Los canales de comunicación habituales entre la persona coordinadora y DonostiaTIK serán: Un correo electrónico, un número de teléfono fijo y un número de teléfono móvil.
- DonostiaTIK se reserva el control de calidad final de los trabajos realizados, bien de los análisis desarrollados y su idoneidad para responder a las necesidades que los motivaron bien de que, en el caso de desarrollos informáticos, se cumple con los criterios de metodología y calidad de código expresados en el Anexo I “Entorno tecnológico”. Estos criterios pueden evolucionar pero se mantendrá informado al equipo técnico de los cambios que pudieran darse en este aspecto.

La empresa adjudicataria, si así lo requiere DonostiaTIK, instalará en los servidores de DonostiaTIK todos aquellos elementos necesarios para que funcione el proyecto realizado por la empresa adjudicataria. Una vez realizada la instalación, el personal de la empresa adjudicataria comprobará que la instalación ha sido satisfactoria y que el proyecto funciona correctamente.

112344n1

Donostian, sinaduren datan

112344n I



Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Xabier Eguren Etxabeguren (20/03/2024 18:52 CET), Jotxi Guerendiain Larramendi (21/03/2024 08:06 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : PGK9-2PCR-H9NL-O1U7